



CHLOE , Atom Egoyan (Frantzia-Kanada)
Inaugurazioa (Lehiaketa barnean)

MOTHER AND CHILD , Rodrigo García (AEB)
Klausura (Lehiaketaz kanpo)

11'E 10 KALA / 10 TO 11 , Pelin Esmer (Turkia-Frantzia-Alemania)
Kutxa-Zuzendari Berriak Sarirako lehian

BLESSED , Ana Kokkinos (Australia)

CITY OF LIFE AND DEATH , Lu Chuan (Txina)

LOS CONDENADOS (Kondenatuak), Isaki Lacuesta (Espainia)

GET LOW , Aaron Schneider (AEB)
Kutxa-Zuzendari Berriak sarirako hautagaia

HADEWIJCH , Bruno Dumont (Frantzia)

KESHTZAR HAYE SEPID / THE WHITE MEADOWS , Mohammad Rasoulof (Iran)

MAKING PLANS FOR LENA , Christophe Honoré (Frantzia)

LA MUJER SIN PIANO , Javier Rebollo (Espainia-Frantzia)
Kutxa-Zuzendari Berriak Sarirako lehian

LE REFUGE , François Ozon (Frantzia)

EL SECRETO DE SUS OJOS (Bere begietako sekretua), Juan José Campanella (Argentina-Espainia)

THIS IS LOVE , Matthias Glasner (Alemania)

YEONG-DO DA-RI / I CAME FROM BUSAN , Jeon Soo-il (Korea)

YO, TAMBIÉN (Ni ere), Álvaro Pastor, Antonio Naharro (Espainia)
Kutxa-Zuzendari Berriak Sarirako lehian

EL BAILE DE LA VICTORIA (Victoriaren dantza), Fernando Trueba (Espainia)
Lehiaketatik kanpo



CHLOE

Zuzendaria: Atom Egoyan • **Gidoia:** Erin Cressida Wilson • **Argazkia:** Paul Sarossy • **Antzezleak:** Julianne Moore, Liam Neeson, Amanda Seyfried, Max Thieriot, R.H. Thomson
Iraupena: 99 m. • Frantzia-Kanada
Inaugurazioa (Lehiaketa barnean)

Catherine arrakasta handiko medikua da, baina bere senarra David musika irakasle erakargarriak engainatu egiten duela susmatzen du. Bere susmoak eta beldurrak alde batera uzteko, Chloe izeneko neska gazte liluragarri bat kontratatuko du Daviden fidelitasuna probatzeko. Chloek Davidekin egiten duenari buruz esaten dizkion kontakizun sutsuek sexuaren eta sentsualitatearen bidea berriz aurkitzera eramango dute Catherine. *Exotica* (1994), *The Sweet Hereafter* (1987) edo *Ararat* (2002) filmen zuzendariarena.

MOTHER AND CHILD

Zuzendaria: Rodrigo García • **Gidoia:** Rodrigo García • **Argazkia:** Xavier Grobet • **Antzezleak:** Naomi Watts, Annette Bening, Samuel L. Jackson, Kerry Washington
Iraupena: 125 m. • AEB
Klausura (Lehiaketaz kanpo)

Rodrigo García (*Nine Lives*) idazle eta zuzendariaren eta Alejandro González Iñárritu (*Babel*) ekoizlearen eskutik datorkigu hiru emakumeri (Annette Bening, Naomi Watts eta Kerry Washington) eta ama eta semearen arteko indar hautsiezinar buruzko istorio hunkigarri hau.

11'E 10 KALA / 10 TO 11

Zuzendaria: Pelin Esmer • **Gidoia:** Pelin Esmer • **Argazkia:** Ozgur Eken • **Antzezleak:** Nejat Isler, Mithat Esmer, Tayanc Ayaydin, Lacin Ceylan, Savas Akova
Iraupena: 110 m. • Turkia-Frantzia-Alemania
Kutxa-Zuzendari Berriak Sarirako lehian

11'e 10 kala / 10 to 11 Mithat bildumagile sutsuaren eta Ali bere eraikineko atezainaren istorioa da. Mithatentzat Istanbul bere bildumak bezain zabala da; Alirentzat, aldiz, eraikinaren inguruko hainbat etxadi besterik ez da. Lurrikaren beldurrak eta etxe baliotsuagoa izateko desirak bultzatuta bizilagunek eraikina berreraikitzea erabakitzen dutenean, Mithatek bere bildumak onik ateratzeko erronkari ekingo dio. 2005. urtean Zabaltegi-Zuzendari Berriak atalean parte hartu zuen *Oyun (The Play)* lanaren zuzendariaren bigarren filma da.

BLESSED

Zuzendaria: Ana Kokkinos • **Gidoia:** Andrew Bovell, Melissa Reeves, Patricia Cornelius, Christos Tsiolkas • **Argazkia:** Geoff Burton • **Antzezleak:** Frances O'Connor, Miranda Otto, Deborra-Lee Furness, Victoria Haralabidou, Monica Maughan
Iraupena: 115 m. • Australia

Egun batean eta gau batean zehar, zazpi ume kaleetan barrena ibiliko dira hiriko odisea batean murgilduta. Nolanahi ere, etxerako bidea ez dute guztiak aurkituko. Egunsentia da baina oraindik egun berean gaude; oraingoan odisea bost amen ikuspuntutik ikusiko dugu. *Head On* (1998) eta *The Book of Revelation* (2006) lanen zuzendariaren hirugarren film luzea.



CITY OF LIFE AND DEATH

Zuzendaria: Lu Chuan · **Gidoia:** Lu Chuan · **Argazkia:** Cao Yu · **Antzezleak:** Liu Ye, Fan Wei, Hideo Nakaizumi, Gao Yuanyuan
Iraupena: 135 m. · Txina

1937. urtea. Japoniako tropak Txinako behin-behineko hiriburuan sartu dira. Okupazio anker horri "Nanjingen bortxaketa" izena jarriko diote. Zuri-beltzean errodatua dago angeluhandiarekin, eta japoniarren eta txinatarren ikuspuntuak tartekatzen ditu hiri suntsituko eguneroko bizitzaren erretratu inpresionista eta sinesgarria egiteko. Xehetasun handiz azalduko dizkigu, halaber, gerra garaian bizirik ateratzen direnek izaten dituzten dilema etikoak. *Xun quiang (The Missing Gun, 2002)* eta 2004ko Tokioko jaialdiaren Epaimahaiaren Sari Bereziaren irabazlea *Kekexili (Mountain Patrol, 2004)* lanen zuzendariaren adierazpen antibelizista.

LOS CONDENADOS

(Kondenatuak)

Zuzendaria: Isaki Lacuesta · **Gidoia:** Isaki Lacuesta, Isabel Campo · **Argazkia:** Diego Dussuel · **Antzezleak:** Daniel Fanego, Arturo Goetz, Leonor Manso, Maria Fiorentino, Juana Hidalgo
Iraupena: 104 m. · Espainia

Gerrilari izandako bi lagunek elkarrekin egingo dute topo 30 urteren buruan, legez kanpoko indusketa batean garai hartan desagertutako lagun baten gorpuaren bila ari direla. Sasoi zaharretako tentsioa eta ezkutatutako sekretuak azalera egingo dira, aurreikus ezin daitekeen amaierara gerturatzeko ari diren heinean. Guztia ez da izango ematen zuen modukoa. *Cravan vs Cravan (2002)* eta *La leyenda del tiempo (2006)* pelikulen zuzendariaren hirugarren film luzea da hau.

GET LOW

Zuzendaria: Aaron Schneider · **Gidoia:** Chris Provenzano, C. Gaby Mitchell · **Argazkia:** David Boyd · **Antzezleak:** Robert Duvall, Bill Murray, Sissy Spacek, Lucas Black
Iraupena: 101 m. · AEB

Kutxa-Zuzendari Berriak sarirako hautagaia

Tennessee ekialdean dauden Appalache Mendien inguruan kondaira bat ibili da bueltaka hainbat hamarkadatan. Eskopeta daraman gizon bakarti bati buruzko istorioak entzuten dira. Zenbaitek esaten duenez Felix Bushek gizonak hil ditu ukabildakada eta badirudi 70 urte izan arren oraindik ere egin dezakeela eta egingo lukeela. Batzuek gizona munduan zehar ibili nahi zuen gazte geldiezin eta azkarra zeneko garaik gogoratzen dituzte. Zer gertatu zitzaion? Guztiek uste zuten haren sekretua berarekin hilko zela. Baina bakarti izugarria bere hileta prestatzen ari da orain... eta bertan egoteko asmoa du! *Two Soldiers (2004)* film laburragatik Oscarra irabazi zuen Aaron Schneider argazkilariak zuzendari gisa egin duen lehenengo film luzea.

HADEWIJCH

Zuzendaria: Bruno Dumont · **Gidoia:** Bruno Dumont · **Argazkia:** Yves Cape · **Antzezleak:** Julie Sokolowski, David Dewaele, Yassine Salim, Karl Sarafidis
Iraupena: 105 m. · Frantzia

Hadewijch izeneko nobiziaren fede itsu eta estasiszkoarekin txundituta, Ama Nagusiak komentutik botatzea erabakiko du. Orduan, Hadewijch, Céline izango da berriz, diplomatiko baten 20 urteko alaba. Hala ere, Jainkoagatik duen maitasun sutsuak, bere haserreak eta Yassine eta Nassirrekin duen topaketak, eremu arriskutsuetara eramango dute neska. Canneseo Epaimahaiaren Sari Nagusia irabazi zuten *L'Humanité (1999)* eta *Flanders (2006)* lanen zuzendariaren bosgarren film luzea.



KESHTZAR HAYE SEPID / THE WHITE MEADOWS

Zuzendaria: Mohammad Rasoulof • **Gidoia:** Mohammad Rasoulof • **Argazkia:** Ebrahim Ghafouri • **Antzezleak:** Hasan Pourshirazi, Yones Ghazali, Mohammad Rabbani, Mohammad Shirvani, Omid Zare
Iraupena: 92 m. • Iran

Rahmatek hainbat irletara joateko agindua jaso du, urte askoz egin duen lana betetzera. Rahmatek irletako biztanleekin elkartu beharko du eta haien malkoak jaso. Urte askoz jendeak bere malkoak Rahmati eman badizkio ere, inork ez daki, zehatz-mehatz, zer egin duen hark malko horiekin. *The Twilight* (2002) eta Gijóngo zinema jaialdiko Sari Berezia irabazi zuen *Iron Island* (2005) lanen zuzendariaren hirugarren film luzea.

MAKING PLANS FOR LENA

Zuzendaria: Christophe Honoré • **Gidoia:** Christophe Honoré, Geneviève Brisac • **Argazkia:** Laurent Brunet • **Antzezleak:** Chiara Mastroianni, Marina Foïs, Marie Christine Barrault, Jean-Marc Barr, Fred Ulysse
Iraupena: 105 m. • Frantzia

Nigel-ekin zuen harremana hautsi zenetik, Lénak ahal duen bezala egiten du aurrera bere bi haurrekin. Bizitzak ematen dizkion golpe guztiak ausardiaz gaintzen ditu. Baina oraindik ez dio okerrenari aurre egin: haren familia jasanezina, edozer gauza egiteko prest dagoena Léna pozik ikusteko... *Ma mère* (2004), *Les chansons d'amour* (2007) eta *La belle personne* (2008) lanen zuzendariarena.

LA MUJER SIN PIANO

Zuzendaria: Javier Rebollo • **Gidoia:** Javier Rebollo, Lola Mayo • **Argazkia:** Santiago Racaj • **Antzezleak:** Carmen Machi, Jan Budar, Pep Ricart, Nadia de Santiago
Iraupena: 95 m. • Espainia-Frantzia
Kutxa-Zuzendari Berriak Sarirako lehian

La mujer sin piano XXI. mende hasierako etxeoandre madrildar baten 24 orduko erretratua da; etxeo eta laneko bizimodua kontatzen du, baita sexuala ere. *La mujer sin piano* filmeko protagonistak maleta bat, zapata pare bat, Carmen Machi (zinemako lehen protagonista rola) eta Jan Budar (aktore, idazle eta musikari txekiarra) dira. *Lo que sé de Lola* filmaren zuzendariaren bigarren film luzea.

LE REFUGE

Zuzendaria: François Ozon • **Gidoia:** François Ozon, Mathieu Hippéau • **Argazkia:** Mathias Raaflaub • **Antzezleak:** Isabelle Carré, Louis-Ronan Choisy, Pierre Louis-Calixte, Melvil Poupaud, Claire Vernet
Iraupena: 90 m. • Frantzia

Mousse eta Louis gazteak, ederrak eta aberatsak dira, eta maiteminduta daude. Baina drogek haien bizitza inbaditu dute. Egun batean, gairak Louis akabatuko du. Mousse bizirik aterako da, baina laster, haurdun dagoela jakingo du. Galduta sentituko da eta Parisetik urrun dagoen etxe batera alde egitea erabakiko du. Zazpi hilabete geroago, Louisen anaia Mousserekin aurkituko da babesleku berrian. *Sous le sable* (2000), *8 Femmes* (2002), *Le temps qui reste* (2005) eta *Ricky* (2009) filmen zuzendariarena.



EL SECRETO DE SUS OJOS

(Bere begietako sekretua)

Zuzendaria: Juan José Campanella • **Gidoia:** Eduardo Sacheri, Juan José Campanella • **Argazkia:** Félix Monti • **Antzezleak:** Ricardo Darín, Soledad Villamil, Pablo Rago, Javier Godino, Guillermo Francella

Iraupena: 129 m. • Argentina-Espainia

Azken 25 urteetan krimen bat burutik ezin kendu ibili da Benjamín Espósito. Orain, bere heldutasunean, istorio hartara itzultzea erabaki du; berriz ere maitasunak, heriotzak eta laguntasunak zeharkaturiko iragan hartan sartuko da. Baina oroimen horiek, hamaika aldiz gogora ekarri dituen arren, iraganaren ikuspegia aldatuko diote orain. Eta bere etorkizuna berridatziko dute. Ingelesezkoa Ez den Film Onenaren Oscar sarirako izendatutako *El hijo de la novia* (2001) lanaren zuzendariarena.

THIS IS LOVE

Zuzendaria: Matthias Glasner • **Gidoia:** Matthias Glasner • **Argazkia:** Sonja Rom • **Antzezleak:** Corinna Harfouch, Jens Albinus, Lisa Nguyen, Jürgen Vogel, Devid Striesow

Iraupena: 107 m. • Alemania

Chris eta Jenjira txikia mafiagandik ihesi dabilza. Holger-ekin batera Chrisek pertsonen trafikoan aritzen direnen eskuetatik hartu zuen 9 urteko neskatila vietnamdarra, baina ezin izan zien ordaindu. Maggie polizia inspektore lotsatia da eta gehiegi edateko joera du; egun batean, duela 16 urte bere senarra izan zenak utzi izanaren arrazoia jakingo du. Bi pertsonaiek topo egingo dute Chrisi hilketa bat leporatzen diotenean. Hainbat galdeketaren ondoren ongi ezagutuko dute elkar eta batak besteari bere ezkutuko beldurrak eta desio arriskutsuak kontatuko dizkio... *Die mediocren* (1999) eta *Der Freie Wille* (*The Free Will*, 2006) lanaren zuzendariarena.

YEONG-DO DA-RI / I CAME FROM BUSAN

Zuzendaria: Jeon Soo-il • **Gidoia:** Jeon Soo-il • **Argazkia:** Kim Sung-tai • **Antzezleak:** Park Ha-seon, Kim Jung-tae

Iraupena: 83 m. • Korea

In-hwa izeneko 18 urteko neska bakarrik bizi da Busanen. Inork ez daki haurdun dagoela, Sang-mi lagun onenak izan ezik; hark, haurra adopzioan eman dezan aholkatuko dio. In-hwak gogo txarrez sinatu eta haurra utziko du. Denborak aurrera egin ahala gero eta gehiago haziko da umeagatiko nahia. Ondorioz, adopzio etxera joango da haurra berriz ere har dezakeen galdetzera. *The Bird Who Stops in the Air* (1999) eta *With the Girl of Black Soil* (2007) lanaren zuzendariarena.

YO, TAMBIÉN

(Ni ere)

Zuzendaria: Álvaro Pastor, Antonio Naharro • **Gidoia:** Álvaro Pastor, Antonio Naharro • **Argazkia:** Alfonso Postigo • **Antzezleak:** Lola Dueñas, Pablo Pineda, Isabel García Lorca, Pedro Álvarez Osorio, Antonio Naharro

Iraupena: 105 m. • Espainia

Kutxa-Zuzendari Berriak Sarirako lehian

Daniel, 34 urteko Sevillako gaztea, Down sindromea duen eta unibertsitateko titulua lortu duen lehenengo europarra da. Administrazio publikoan hasiko da lanean, eta han, Laura ezagutuko du, itxuraz inongo ezgaitasunik ez duen lankidea. Daniel harekin maiteminduko da.



EL BAILE DE LA VICTORIA

(Victoriaren dantza)

Zuzendaria: Fernando Trueba • **Gidoia:** Fernando Trueba, Jonás Trueba, Antonio Skármeta • **Argazkia:** Julián Ledesma • **Antzezleak:** Ricardo Darín, Abel Ayala, Miranda Bodenhöfer, Ariadna Gil

Iraupena: 127 m. • Espainia

Lehiaketatik kanpo

Txilera demokrazia iristean, odol deliturik ez zuten presoentzako amnistia orokorra dekretatu zuten. Ángel Santiago kartzelan jasan behar izan zituen gehiegikeriengatik mendeku hartzeko prest dagoen gaztea da, eta Vergara Grey banku-lapur ospetsuaren bila hasiko da; Greyk, ordea, lapurretek eman dioten ospea alde batera utzi nahiko luke. Lapurreta arriskutsu baterako plana zaildu egingo zaio, Victoria dantzari nerabe misteriotsua agertzen denean. Truebak ingelesezkoa ez den pelikularik onenaren Oscar saria irabazi zuen *Belle époque* (1992) lanarekin, baita Zilarrezko Hartza ere Berlingo zinema jaialdian *El año de las luces* (1986) obrarekin.
